

SILENT DRYER

● Funtsezko baliabideak:

Funtsezko baliabideak gure proiektuan, sekagailu isila egiteko, oso garrantzitsuak dira. Baliabide hauek laguntzen digute gure produktua sortzen, bezeroengana iristen eta dirua irabazten.

Gure proiektuak lau funtsezko baliabide mota behar ditu:

1. **Baliabide fisikoak**

Sekagailu isila egiteko behar ditugun materialak eta gauzak. Adibidez: piezak, motor isila, plastikozko eta metalezko zatiak. Tresna sinpleak ere behar ditugu sekagilua muntatzeko. Biltegi bat behar dugu produktuak gordetzeko.

2. **Baliabide intelektualak**

Baliabide intelektualak gure marka eta izen ona dira, eta sekagailu isilaren diseinua eta ideiak. Spa S'Thai-rekin dugun harremana ere garrantzitsua da, gure produktua ezagutarazten laguntzen duelako.

3. **Giza baliabideak**

Gure proiektuan lan egiten duten pertsonak. Gure diseinua egiteko 2 ingeniari beharrezkoak izan dira. Produktuaren salmenta kudeatzeko administraziozko pertsona bat eta produktua aurkeztu eta saltzeko marketing teknikari bat.

4. **Finantza baliabideak**

Gure proiektua hasteko eta jarraitzeko behar dugun dirua da: hasierako dirua eta maileguak.